# Xedapen Orokorrak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**5867**

302/2010 DEKRETUA, azaroaren 16koa, nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzei buruzkoa.

Energia berriztagarriek gero eta garrantzi handiagoa dute ingurumenaren errespetuaren alorreko helburuak lortzeko; batetik, gutxiago kutsatzen dutelako, eta, bestetik, batez ere, berriztatzeko ahalmena dakartelako. Energiaren kontsumoa da gizarte baten aurrerapen maila eta ongizate maila neurtzeko adierazlerik garrantzitsuenetarikoa. Beraz, lehentasunezkotzat eta estrategikotzat jotzen dira energia berriztagarriak, ingurumena eta lurralde-oreka errespetatzen baitituzte. Horrek, era berean, arreta berezia eskatzen du, bizikalitate zein oreka sozial handiagoa lortzeko eta gure ekonomian balioa eta aberastasuna sortzeko. Horrela dago jasota Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legean. Hain zuzen ere, lege horren III. tituluak arautzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek energia berriztagarrien potentziala garatzeko ekintzak eta neurriak sustatzeko beharrezkoak diren baldintza juridiko, sozioekonomiko eta administratiboak ezarriko dituzte, besteak beste, ingurumenarekiko iraunkorrak diren laboreen ustiaketa energetikoa eginez, eta hondakinen erabilera energetikoa eginez jardunbide iraunkor gisa.

Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamenduak, uztailaren 11koak –Eskualde Garapeneko Europako Gizarte Funtsari eta Kohesio Funtsari buruzko xedapen orokorrak ezartzen ditu–, egitura-funtsek zer helburu lortzen lagundu behar duten zehazten du, bai eta estatu kideek eta eskualdeek zer baldintza bete behar dituzten ere, funtsei atarramentua ateratzeko. Bestetik, Kontseiluaren 1698/2005 (CE) Erregelamenduak, 2005eko irailaren 20koak –Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bidez landa-garapenari laguntza emateari buruzkoa–, 2007ko urtarrilaren 1etik eta 2013ko abenduaren 31ra arteko programazio-aldirako helburuak lortzeko, landa-garapen iraunkorraren alde Erkidegoak ematen dituen laguntzen esparru juridikoa ezarri du, eta, besteak beste, nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzak arautzen ditu. Neurri hori Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan (2007-2013) sartu da. Programa hori Europako Batzordeak onartu zuen 2008ko otsailaren

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**5867**

DECRETO 302/2010, de 16 de noviembre, de ayudas a la inversión en infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola.

Las energías renovables han adquirido una importancia creciente para la consecución de los objetivos de respeto al medio ambiente, ya sea por su menor efecto contaminante o, fundamentalmente, por su posibilidad de renovación. El consumo de energía es uno de los grandes medidores del progreso y bienestar de una sociedad. Por ello, el carácter prioritario y estratégico que merecen las energías renovables, respetuosas con el medio ambiente y con el equilibrio territorial, exige una especial atención en aras a lograr una mayor calidad de vida y un equilibrio social así como la generación de valor y riqueza en nuestra economía. Así se recoge en la Ley 17/2008, de 23 de diciembre, de Política Agraria y Alimentaria, que en su Título III regula la necesidad de que las administraciones vascas establezcan las condiciones jurídicas, socioeconómicas y administrativas necesarias para el fomento de acciones y medidas destinadas a desarrollar el potencial de las energías renovables, impulsando los cultivos ambientalmente sostenibles para su aprovechamiento energético, así como la utilización energética de los residuos como práctica sostenible, entre otras.

El Reglamento (CE) n.º 1083/2006, del Consejo, de 11 de julio, por el que se establecen disposiciones generales relativas al Fondo Europeo de Desarrollo Regional, al Fondo Social Europeo y al Fondo de Cohesión, define los objetivos a cuya consecución deben contribuir los Fondos Estructurales, así como los requisitos que han de cumplir los Estados Miembros y las regiones para beneficiarse de ellos. Por su parte, el Reglamento (CE) n.º 1698/2005 del Consejo de 20 de septiembre de 2005, relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (Feader), ha establecido, para alcanzar los objetivos para el periodo de programación comprendido entre el 1 de enero de 2007 y de 31 de diciembre de 2013, el marco jurídico de las ayudas comunitarias a favor de un desarrollo rural sostenible regulándose, entre otras, las ayudas a la inversión en instalaciones ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola. Esta medida se ha incluido en el «Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco» 2007-2013, aprobado por la Comisión

15eko C (2008) 704 Erabakiaren bidez, eta 2010eko martxoaren 2ko C (2010) 1228 Erabakiaren bidez aldatu du, «Nekazaritzaren eta basogintzaren garapenarekin eta egokitzapenarekin lotutako azpiegiturak» neurriaren barruan, eta 125.2 azpineurrian («Beste landa-azpiegitura batzuk») jasota dago.

Ingurumen alorreko neurrietan bilakaera izan da, estatu kideen eta Europako Erkidegoaren ekimenez, izan ere, ingurumen alorrean energia berriztagarriak erabiltzeko neurriak lehentasuntzat hartu dira Erkidegoan, epe luzera bultzatu beharreko ekimen gisa. Neurri horiek garrantzitsuak dira Europar Batasunarentzat, 2010erako ezarritako helburuak aintzat hartuta, energiaren liburu berdeak jasotzen duenez, energia berriztagarriak energiaren barne kontsumo gordinaren % 12 izatea lortu nahi baita.

Arau-esparru horren arabera, arautu egin behar dira nekazaritza eta basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzak, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programaren (2007-2013) programazio-aldirako. Helburu horretarako, dekretu honetan zenbait neurri ezarri dira, biomasa edo hondakin organikoen tratamenduaren bidez energiak sortu ahal izateko. Helburu bikoitza du horrek: batetik, nekazaritza-ustiategiek gehiago aurreztuko dute eta, bestetik, ingurumena hobetuko da. Neurri hori garatuta, gure ustiategiak modernizatu egingo dira, energiak merkeago eskuratu ahal izango dira eta balio erantsi handiagoa sortzeko aukera izango da.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19.etik 22.era bitarteko artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta egin du dekretu hau.

Dekretu hau egiteko, tartean den arloko organizazio adierazgarrienei zein iritzi duten galdetu diegu, eta derrigorrezko txosten guztiak ere esku artean izan ditugu.

Dekretu honen bidez Erkidegoko arauak garatu eta gauzatu nahi direnez, dekretu honen edukia Europar Batasuneko erakundeetan unean-unean onar daitezkeen erabakien menpe egongo da.

Horrenbestez, Landaberrirekin eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak proposaturik eta Gobernu Kontseiluak 2010eko azaroaren 16an egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

Europea mediante Decisión C (2008) 704 de 15 de febrero de 2008 y modificado mediante Decisión C (2010) 1228 de 2 de marzo de 2010, dentro de la medida «Infraestructuras relacionadas con la evolución y la adaptación de la agricultura y la silvicultura» y contemplada en la submedida 125.2 referida a «Otras Infraestructuras Rurales».

Las medidas en el ámbito del medio ambiente han ido evolucionando por iniciativa de los Estados miembros y de la Comunidad Europea, considerando las medidas de las energías renovables una prioridad comunitaria en el ámbito del medio ambiente, como iniciativas a fomentar a largo plazo. Estas medidas son consideradas importantes para la Unión Europea en atención a los objetivos marcados para el año 2010, en el que se pretende alcanzar, tal y como recoge el Libro verde de la energía, una contribución de las energías renovables del 12% del consumo energético interior bruto.

El marco normativo expuesto hace necesario regular las ayudas a la inversión en instalaciones ligadas a energías renovables en el sector agrario y silvícola para el período de programación del PDRS 2007-2013. Con este fin, el presente Decreto contempla una serie de medidas que posibilitan la producción de energías a partir de la biomasa o residuos orgánicos potenciando una doble finalidad: por un lado, un ahorro energético en las explotaciones agrarias y, por otro, una mejora ambiental. El desarrollo de esta medida va a contribuir a una modernización estructural de nuestras explotaciones, el acceso a energías más baratas y va a posibilitar la generación de mayor valor añadido por parte de las mismas.

El Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca ha elaborado el presente Decreto teniendo en cuenta lo dispuesto en los artículos 19 a 22 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Para la elaboración del presente Decreto han sido consultadas las organizaciones más representativas del sector afectado, disponiendo así mismo de todos los informes preceptivos.

En la medida en que el presente Decreto pretende el desarrollo y ejecución de normativa comunitaria, su contenido estará sometido a las decisiones que en cada momento pudieran adoptarse por las Instituciones de la Unión Europea.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, de conformidad con Landaberri y con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 16 de noviembre de 2010,

XEDATZEN DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

1.– Dekretu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta/edo basogintza arloetan energia berriztagarrien azpiegituretan inbertsioak egiteko diru-laguntzen erregimena ezarri eta arautzea. Diru-laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan (2007-2013) daude sartuta. Programa hori Europako Batzordeak onartu zuen 2008ko otsailaren 15eko C (2008) 704 Erabakiaren bidez, eta 2010eko martxoaren 2ko C (2010) 1228 Erabakiaren bidez aldatu du.

2.– Dena dela, basogintza arloarekin lotutako diru-laguntzak minimis erregimenaren arabera emango dira, Tratatuaren 87. eta 88. artikuluen aplikazioari buruzko 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Erregelamenduarekin bat etorriz.

***2. artikulua.***– Denbora eremua eta eremu geografikoa.

1.– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programak (2007-2013) indarrean dirauen bitartean aplikatuko da, oso-osorik gauzatu arte.

2.– Dekretu honen aplikazioaren eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan (2007-2013) jasotako EAEko landa-eremu guztiak izango dira. Landa-eremutzat hartuko dira nekazaritza- eta/edo basogintza-ustiategiak dituzten espazioak, edo landa-ingurunearekin zerikusia dutenak, Natura 2000ko guneetako jarduerak izan ezik, kanpoan geratzen baitira horiek.

***3. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Dekretu honetan jasotako diru-laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzean xede horretarako ezartzen diren kredituetatik aterako dira, eta, Europar Batasuneko organo eskudunek unean-unean Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorreko Programan (2007-2013) ezarritako baldintzetara egokitu beharko dira.

2.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan emango diren diru-laguntza guztiek ez dute gaindituko deialdiaren aginduan urtero hori finantzatzeko ezartzen den gehienezko diru-kopurua, ezta haren eguneratzetik lortzen den kopurua ere, indarreko legerian jasotako kreditu-loturaren edo aurrekontu-aldaketen araubidearekin bat etorrita.

Eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan harturik, zenbateko hori handitu ahal izango da, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren beste laguntza-egitarau batzuk gauzatzean

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto.

1.– Es objeto del presente Decreto establecer y regular el régimen de ayudas a la inversión en infraestructuras ligadas a energías renovables en el sector agrario y/o silvícola de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estas ayudas están englobadas en el marco del Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013 aprobado por Decisión de la Comisión C (2008) 704 de 15 de febrero de 2008, modificado mediante Decisión C (2010) 1228 de 2 de marzo de 2010.

2.– No obstante, las ayudas relacionadas con el sector forestal se concederán bajo el régimen de minimis de conformidad con el Reglamento 1998/2006, de 15 de diciembre de 2006, relativo a la aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado.

***Artículo 2.***– Ámbito temporal y geográfico.

1.– El presente Decreto será de aplicación durante la vigencia del «Plan de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco» –PDRS– (2007-2013), hasta su total ejecución.

2.– El ámbito geográfico de aplicación del presente Decreto comprenderá la totalidad de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco recogidas en el «Plan de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco» –PDRS– (2007-2013), entendidas éstas como aquellos espacios que sostienen explotaciones agrícolas y/o forestales o cualesquiera otras en relación con el medio rural, excepto las actuaciones en zonas Natura 2000, que quedan excluidas.

***Artículo 3.***– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a financiar las ayudas contempladas en el presente Decreto procederán de la contribución del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural «FEADER» y de los créditos establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para cada ejercicio, debiendo adaptarse a las condiciones establecidas en cada momento en el Programa de Desarrollo Rural Sostenible del País Vasco 2007-2013 por los órganos competentes de la Unión Europea.

2.– El volumen total de las ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no superará la dotación global máxima destinada a su financiación que anualmente se establezca en la orden de convocatoria o la cuantía que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente.

Dicho importe podrá ser incrementado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros pro-

agortu ez den aurrekonturik izanez gero, laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Hazkunde hori izango balitz –laguntzak emateko prozedura ebatzi baino lehen gertatu beharko da–, iragarri egingo litzateke, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariaren ebazpena sartuz Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

***4. artikulua.***– Onuradunak eta betekizunak.

1.– Dekretu honetan araututako laguntzen onuradunak izango dira Euskal Autonomia Erkidegoan energia berriztagarrien produkzioari lotutako pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, baldin eta diruz laguntzeko moduko inbertsio eta gastuak egiten badituzte eta dekretu honetan xedatutakoa betetzen badute.

2.– Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) 5. artikuluan deskribatutako jardueraren bat egitea.

b) Diruz lagunduko diren instalazioen zerbitzua jasotzen duten nekazaritza-ustiategien titular ez izatea.

c) Diruz laguntzekoak diren inbertsioak hasita ez egotea eskabidea aurkezten denean. Egoera hori bertan egingo den ikuskaritzaren eta Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzak egoera horri buruz prestatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da. Baldin eta enpresak aurrekontu-ekitaldi jakin batean hasi behar badu inbertsioak egiten, baina deialdi-aginduak urtero ezartzen duen epea ireki baino aurretikoa bada, behar bezala betetako eskabidea aurkeztu beharko du, eskabidearen agiri guztiekin batera.

d) Egunean izatea foru-ogasunekin dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

e) Beharrezkoa balitz, jarduerak gauzatzeko behar diren lurrak izatea, jabetzan edo errentan, edo lurren gozamen-eskubidea izatea.

f) Proiektuak, hala badagokio, obrak kontratatzeko aldez aurretik behar dituen lizentzia, baimen eta gainerako tramite guztiak izatea.

g) Eskatzailea eta instalazioaren zerbitzua jasoko duen ustiategiaren titularra lotuko dituen kontratua egitea.

h) Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako legezko inolako debekurik izatea ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasune-

gramas de ayudas del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, con carácter previo a la resolución de las mismas. En el supuesto de que se produzca dicho incremento, que habrá de tener lugar con carácter previo a la resolución del procedimiento de concesión de ayudas, se dará publicidad de tal circunstancia mediante resolución de la persona titular de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Artículo 4.***– Personas beneficiarias y requisitos.

1.– Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente Decreto, las personas físicas o jurídicas públicas o privadas ligadas a la producción de energías renovables de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que realicen las inversiones y gastos que se consideren subvencionables y que cumplan lo dispuesto en el presente Decreto.

2.– Las personas beneficiarias deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Desarrollar alguna de las acciones que se describen el artículo 5.

b) No ser titulares de las explotaciones agrarias a las que atienden las instalaciones a subvencionar.

c) Que las inversiones subvencionables no estén comenzadas en el momento en el que se presenta la solicitud. Esta situación se comprobará mediante una inspección in situ y la emisión de una certificación de la citada situación por parte de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias. En el supuesto de que la empresa deba iniciar las inversiones en un ejercicio presupuestario pero antes de la apertura de plazo que anualmente establezca la orden de convocatoria, se deberá presentar una solicitud debidamente cumplimentada, junto con toda la documentación de la solicitud.

d) Estar al corriente del pago de las obligaciones tributarias con las Haciendas Forales y frente a la Seguridad Social.

e) Disponer, si fuera necesario, en régimen de propiedad, arrendamiento o usufructo, de los terrenos necesarios para la ejecución de las actuaciones

f) Que el proyecto disponga de las licencias, autorizaciones y demás trámites administrativos previos y necesarios para la contratación de las obras, en su caso.

g) Que se formalice un contrato que comprometa a la persona solicitante y a la persona titular de la explotación a la que atienda la instalación.

h) No encontrarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halle incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan produci-

rako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

***5. artikulua.***– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Nekazaritza- eta/edo basogintza-ustiategietako hondakin organikoetatik energia sortzeko instalazio berritzaileak ezartzeko emango da diru-laguntza. Instalazioek euskal nekazaritza-arloari emango diote zerbitzua eta ondoko helbururen bat lortzen lagunduko dute:

a) Nekazaritza-ustiategiek energia gehiago aurreztea.

b) Ingurumena hobetzea, nekazaritza- eta/edo basogintza-ustiategietako biomasaren tratamenduaren ondorioz.

2.– Jarduera-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta/edo basogintza-ustiategiak izango dira.

3.– Dena dela, laguntza jasoko duten inbertsio-proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean kokatu beharko dira.

***6. artikulua.***– Zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.– Dekretu honen babesean emandako diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa diruz lagun daitekeen egiaztatutako gastuaren % 80koa izango da gehienez.

2.– Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira 5. artikuluan ezarritako jarduerak egitetik sortutakoak.

3.– Ez dira diruz lagun daitezkeen gastuak izango:

a) Lurra erosi edo errentan hartzea.

b) Erabilitako ekipoetan egindako inbertsioak.

c) Onuradunaren beraren langileen gastuak.

d) Finantza-gastuak.

e) Fakturatutako zerbitzu edo ondasunak eskuratzeagatik ordaindutako BEZa eta, orokorrean, onuradunak ordaindutako edozein zerga.

f) Komunikazio, parte-hartze, informazio edo sentsibilizazio kanpainen gastuak.

g) Orokorrean, argi eta garbi definituta ez dauden gastu guztiak edo laguntza hauetan ezarritako helburuak lortzera zuzenean bideratuta ez dauden gastuak.

***7. artikulua.***– Diru-laguntzen ezaugarriak.

Dekretu honen babesean ematen diren diru-laguntzak ez dira itzulgarriak izango eta Europako Erkidegoko xedapenei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen diru-laguntzak arautzeko indarreko araudiari loturik egongo dira. Arau horiek

do por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final Sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 5.***– Actuaciones subvencionables.

1.– Se subvencionará la implantación de instalaciones de carácter innovador para la producción de energía a partir de residuos orgánicos procedentes de explotaciones agrarias y/o silvícolas. Las instalaciones deberán atender al sector agrario vasco y servir para la consecución de alguna de las finalidades siguientes:

a) El ahorro en el coste energético de las explotaciones agrarias.

b) La mejora ambiental como consecuencia del tratamiento de biomasa procedente de explotaciones agrícolas y/o silvícolas.

2.– El ámbito de actuación serán las explotaciones agrarias y/o silvícolas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– En todo caso, los proyectos de inversión objeto de la ayuda deberán localizarse en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

***Artículo 6.***– Cuantía y gastos subvencionables.

1.– El importe de cada una de las subvenciones que se concedan al amparo del presente Decreto podrá ser de hasta el 80% del gasto subvencionable acreditado.

2.– Se considerarán gastos subvencionables los derivados de la ejecución de las acciones establecidas en el artículo 5.

3.– No se considerarán costes subvencionables los siguientes:

a) La adquisición o arrendamiento de terreno.

b) Las inversiones en equipos usados.

c) Los gastos de personal propio.

d) Los gastos financieros.

e) El IVA satisfecho por la adquisición de bienes o servicios facturados y, en general, cualquier impuesto pagado por la persona beneficiaria.

f) Los relativos a campañas de comunicación, participación, información o sensibilización.

g) En general todos aquellos gastos que no estén claramente definidos o que no tengan por finalidad directa la consecución de los objetivos establecidos en las presentes ayudas.

***Artículo 7.***– Naturaleza de las ayudas.

Las ayudas que se concedan en virtud del presente Decreto tendrán la consideración de subvenciones no reintegrables y se encontraran sometidas a las disposiciones comunitarias y a la normativa vigente reguladora de las subvenciones de la Administración Pú-

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginean jasota daude –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutakoa–.

***8. artikulua.–*** Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Dekretu honetan arautukako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin beste edozein administrazio publiko, sail, organismo edo erakunde publiko zein pribatuk eman ditzakeen beste laguntza batzuekin, dena dela, diru-laguntzen batura ez da handiagoa izango salbuespen araudian edo Batzordeak hartutako erabakian kasu bakoitzeko inguruabar zehatzetarako ezarritako laguntzak baino.

2.– Aurrekoa gorabehera, LGENFrekin batera finantzatutako laguntzak ez dira bateragarriak izango Erkidegoko beste edozein finantza-tresnaren bidez emandako beste edozein laguntzarekin.

3.– Arau honen bidez laguntza jasotzen duten eskatzaileek jakinarazi egin beharko diote une oro Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzari xede bererako beste diru-laguntza edo laguntzarik jasotzen duten.

***9. artikulua.–*** Eskabideak eta horiek aurkezteko epea.

1.– Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak eskatzeko I. eranskineko inprimaki-eredua bete behar da (www.nasdap.ejgv.euskadi.net webgunean egongo da eskuragarri) eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzan aurkeztu; edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan finkatu diren bideetatik edozein ere erabili ahalko da. Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztuko dira:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, pertsona fisikoa bada.

b) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, egoki denean, erakundearen informazio orokorra, IFZren fotokopia, erakundearen estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak eta eskatzailearen ahalordea.

c) Egingo den jardueraren proiektua edo deskripzio-memoria, helburuak, instalazioaren eskema, diseinuaren justifikazioa, kalkuluen laburpena, aurrekontu xehatua, kronograma eta planoak adierazita.

d) Jarduerarekin aurreztuko den urteko energia justifikatzen duen kalkulua.

blica de la Comunidad Autónoma de Euskadi contenida en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

***Artículo 8.–*** Compatibilidad de las ayudas.

1.– Las ayudas reguladas por el presente Decreto serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra Administración Pública, Departamento, organismo o entidad publica o privada, siempre y cuando la acumulación de las mismas no dé lugar a una intensidad de ayuda superior a la establecida para las circunstancias concretas de cada caso en un reglamento de exención por categorías o en una decisión adoptada por la Comisión.

2.– Sin perjuicio de lo anteriormente dicho, las ayudas cofinanciadas por el FEADER serán incompatibles con las ayudas cubiertas por cualquier otro instrumento financiero comunitario.

3.– Las personas solicitantes que resultaren beneficiarias a través de esta norma, deberán comunicar en todo momento a la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias, la obtención de otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad.

***Artículo 9.–*** Solicitudes y plazo de presentación.

1.– Las solicitudes para acogerse a las ayudas previstas en el presente Decreto se formularan cumplimentando el impreso-modelo recogido en el anexo I que estará disponible en la web: www.nasdap.ejgv.euskadi.net y se presentarán directamente ante la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco y, en todo caso, se podrán utilizar cualquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. A dicha solicitud se adjuntará la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del solicitante en el supuesto de ser persona física.

b) En el caso de que la solicitante sea una persona jurídica deberá presentar, cuando proceda, información general de la entidad, fotocopia del NIF, estatutos de la entidad, acreditación de su inscripción en los registros públicos correspondientes y poder de la persona solicitante.

c) Proyecto o memoria descriptiva de la actuación a desarrollar, con determinación de los objetivos perseguidos, esquema de la instalación, justificación del diseño, resumen de cálculos, presupuesto desglosado, cronograma y planos.

d) Cálculo justificativo de la energía anual a ahorrar con la actuación.

e) Instalaziora zuzenduko diren urteko hondakinak justifikatzen dituen kalkulua, hondakinen ezaugarriak eta jatorria adierazita.

f) Onuraduna eta instalazioak zerbitzu ematen dion ustiategiaren titularrak sinatutako kontratuaren kopia, hala badagokio.

g) Dagokion foru ogasunarekin dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela erakusteko ziurtagiria.

h) Ordainketa egiteko agiriak; «Hirugarrenen alta».

i) Aurkeztutako dokumentu guztiak egiazkoak direla eta 4. artikuluaren 2. paragrafoko h) idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen direla adierazteko zinpeko aitorpena, dekretu honen II. eranskinean aurreikusitako ereduaren arabera (www.nasdap.ejgv.euskadi.net webgunean egongo da eskuragarri).

2.– Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu bidez, honako dekretu honetan arautuko laguntzen deialdia egingo da urtero, laguntza-eskabideak aurkezteko epeak zabalduko dira, aurrekontuko kreditu erabilgarriaren berri emango da eta laguntzen diren proiektuen iraupena zehaztuko da. Alderdi horiek guztiek ezin izango dituzte inola ere dekretu honetan ezarritakoak urratu.

***10. artikulua.***– Aurkeztutako eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabidea eta dokumentazioa aztertutakoan akatsen bat edo informazioa ez dela osoa ikusiko balitz, eskatzaileak hamar egun baliodun izango ditu, jakinarazpena jasotzen duenetik kontatzen hasita, akatsa zuzendu edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko; adieraziko zaio, ez balu hala egingo, bere eskaerari uko egiten diola ulertuko dela, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emandako ebazpena eman ondoren.

***11. artikulua.***– Laguntzak kudeatu, kontrolatu eta artatzea.

1.– Dekretu honetan arautzen diren laguntzak kudeatzeko organo eskuduna Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendaria izango da.

2.– Diruz lagundutako jardueren kontrola eta artapena zuzendaritza horri dagokio. Zuzendaritzak egoki deritzen ikuskapenak egin ahal izango ditu diru-laguntza lortu duten proiektuak modu egokian gauzatzen direla ziurtatzeko; horretarako, onuradunak eskatzen zaien dokumentazioa eta informazioa aurkeztera behartuta daude.

e) Cálculo justificativo de los residuos anuales a destinar a la instalación, detallando su naturaleza y procedencia.

f) Copia del documento contractual que, en su caso, comprometerá a la beneficiaria y a la persona titular de la explotación a la que atienda la instalación.

g) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la correspondientes Haciendas Forales y hallarse al corriente de los pagos con la Seguridad Social.

h) Documentación para el libramiento de pagos, «Alta a terceros».

i) Declaración jurada respecto de la veracidad de todos los documentos presentados y respecto al requisito establecido en el artículo 4, párrafo 2, apartado h) según el modelo previsto en el anexo II del presente Decreto que estará disponible en la web: www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

2.– Anualmente, por Orden de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, se efectuará la convocatoria de las ayudas aquí reguladas, se abrirán los plazos de presentación de las solicitudes de ayuda, se dará publicidad al crédito presupuestario disponible y se determinará la duración de los proyectos objeto de ayuda, no pudiendo contravenir su contenido lo dispuesto en el presente Decreto.

***Artículo 10.***– Subsanación de defectos en las solicitudes.

En el caso de que analizada la solicitud y la documentación requerida, se observara la existencia de defectos o fuese incompleta, se requerirá a la persona solicitante para que, en el plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la recepción de la correspondiente notificación, subsane la falta o aporte los documentos preceptivos, indicándole que de no hacerlo, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución de la Directora de Innovación e Industrias Alimentarias, dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 11.***– Gestión de las ayudas, control y seguimiento.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas previstas en el presente Decreto es la persona titular de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias.

2.– El control y seguimiento de las actividades subvencionadas corresponde a dicha Dirección, pudiendo realizar cuantas inspecciones considere oportunas en orden a comprobar la correcta ejecución de los proyectos subvencionados, a cuyos efectos las personas beneficiarias estarán obligadas a facilitar cuanta documentación e información les sea solicitada.

3.– Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari egokituko zaio diruz lagundutako proiektuak burutu direla ikuskatzea eta ziurtatzea, ordainketa egin aurretik, eta diru-laguntza ordaintzea, bai eta indarrean dagoen legeriaren arabera dagozkion gainerako zereginak burutzea ere.

***12. artikulua.***– Eskabideen ebaluaketa.

Balorazio-batzorde bat eratuko da eta Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariak aukeratutako zuzendaritza horretako bi pertsonak eta Zerbitzu Zuzendaritzako Zerbitzu Juridikoko pertsona batek osatuko dute. Azken hori izango da idazkaria eta bere funtzioak aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea izango da, dekretu honen 13. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak kontuan izanda; ebazpen-proposamena egitea ere bere ardura izango da. Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzako pertsonetariko bat izango da batzordeko presidente.

***13. artikulua.***– Laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

1.– Dekretu honetan ezarritako laguntzak lehiaketa bidez ebatziko dira, eta, ondorioz, aurrekontu-kreditu berari egotziko zaizkio eta hainbat eskatzaile egoteko aukera kontuan izan beharko da. Eskatzaile horien eskabideak konparatu eta ebaluatuko dira laguntzak emateko eta, hala badagokio, laguntzen zenbatekoa zehazteko.

Laguntza baloraziorik onena eskuratzen duten proiektuek lortuko dute eta, horrela, arau honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituzten eta gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskatzaile guztiak onuradunak izango dira. Onuradun bakoitzari emandako laguntza zehatza dekretu honetan ezarritako laguntzen zenbatekoaren irizpenak aplikatuz lortuko da.

2.– Dekretu honetan arautUtako diru-laguntzak jarraian adierazten diren irizpideen arabera esleituko dira, proiektuaren balorazioa kontuan hartuta. Hauek dira ebaluazioa egiteko irizpideak:

a) Jarduerarekin aurreztu ahal izango den urteko energiaren kalkulu objektiboa; gehienez guztizko portzentajearen % 30 izango da.

b) Urtero instalazioan tratatuko diren nekazaritzako edo basogintzako ustiategietako hondakinen kalkulu objektiboa; ezingo da guztizko portzentajearen % 30 baino gehiago izan.

c) Galdararen errendimendua % 85 baino handiagoa izatea; ezingo da guztizko portzentajearen % 20 baino gehiago izan.

3.– Corresponderá al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, como condición previa para su pago, la inspección y certificación de la efectiva ejecución de los proyectos subvencionados así como el pago de la subvención y las demás actuaciones que le correspondan según la normativa vigente.

***Artículo 12.***– Evaluación de las solicitudes.

Se constituirá una Comisión de Valoración compuesta por dos personas de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias, nombradas al efecto por la persona titular de la Dirección, y una persona del Servicio Jurídico de la Dirección de Servicios, que ejercerá de secretaria, cuyas funciones serán el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, teniendo en cuenta los criterios de adjudicación establecidos en el artículo 13 del presente Decreto, así como la elaboración de la correspondiente Propuesta de Resolución. Una de las personas de la Dirección de Innovación e Industrias Alimentarias ostentará la presidencia de la Comisión.

***Artículo 13.***– Criterios de adjudicación y de cuantificación de las ayudas.

1.– Las ayudas establecidas en el presente Decreto se resolverán mediante el procedimiento de concurso, de forma que, imputadas a un mismo crédito presupuestario, deberá contemplarse la posible existencia de una pluralidad de personas solicitantes, cuyas solicitudes se compararán y evaluarán para la concesión de las ayudas y para la determinación, en su caso, de la cuantía de las mismas.

Obtendrán ayuda aquellos proyectos que obtengan mayor valoración, convirtiéndose las personas solicitantes así en personas beneficiarias, siempre que cumplan los requisitos y condiciones establecidos en la presente norma y que obtengan la puntuación mínima necesaria. La determinación de la ayuda concreta a conceder a cada persona beneficiaria se obtendrá aplicando los criterios de cuantificación de las ayudas establecidas en el presente Decreto.

2.– La adjudicación de las subvenciones reguladas en el presente Decreto se realizará conforme a los criterios que se citan a continuación, dependiendo de la valoración del proyecto. Los criterios de valoración son los siguientes:

a) La estimación objetiva de la energía anual a ahorrar con la actuación, podrán alcanzar hasta el 30% del porcentaje total.

b) La estimación objetiva del volumen de residuos procedentes de explotaciones agrícolas o silvícolas a tratar anualmente en la instalación, podrán alcanzar hasta el 30% del porcentaje total.

c) Que el rendimiento de la caldera sea mayor del 85%, podrá alcanzar hasta el 20% del porcentaje total.

d) Galdarak bero-trukagailuak garbitzeko eta errautsak ateratzeko sistema automatikoak izatea; ezingo da guztizko portzentajearen % 20 baino gehiago izan.

3.– Eskatzaileek, gutxienez, 50 puntu lortu beharko dituzte laguntza jaso ahal izateko, honako taula honen arabera (kontuan izanda gehieneko puntuazioa 100 puntu dela):

| Balorazio-txostenaren puntuazioa | Laguntzaren portzentajea |
|---|---|
| 80 eta 100 punturen artean | % 80ra arte |
| 65 eta 79 punturen artean | % 60ra arte |
| 50 eta 64 punturen artean | % 50era arte |
| < 50 | % 0 |

***14. artikulua.–*** Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazteko modua eta publizitate-prozedura.

1.– Dagokion deialdian aurkeztutako eskabideak prozedura bakarrean izapidetuko dira eta horiek ebaztea, interesdunek planteatutako gai guztiak erabakita, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariari dagokio, Balorazio Batzordeak proposatuta.

2.– Ebazpenean laguntzak eman eta ukatuko dira. Laguntza ematen den kasuetan ondokoak zehaztuko dira: pertsona edo erakunde onuraduna, dirulaguntza jasoko duen proiektua eta aurreikusitako inbertsioa eta proiektua burutzeko epea, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa, LGENFen kargura finantzatutako zatia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura finantzatutako zatia adierazita. Laguntza ematen ez den kasuetan ukatzeko arrazoia adieraziko da.

